



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Zientzia Politikarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades  
e Investigación  
Dirección de Política Científica

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2016ko abenduaren 14ko EBAZPENA, 2016-2017 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2016ko maiatzaren 10eko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen lehen, eta bigarren berritzeak ebazten dituenak.

Berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta, 2016ko maiatzaren 10eko aginduak, 2016-2017 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntza berriak eta horiek berriz ematea deitzen dituenak, xedatutakoa betez,

#### EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren lehenengo berritzea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren bigarren berritzea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Hirugarrena.- Berritze horien dirulaguntzak ordaintzea xedapen honen I. eta II eranskinetan aurreikusten diren aplikazio-zentroei, maiatzaren 10eko Aginduak ezartzen duen moduan 6.6 artikuluan.

Laugarrena.- 2016ko maiatzaren 10eko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

#### AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsua jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 14a.

  
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea,  
Adolfo Morais Ezquerro